



ERKOREKA GERVASIO, Josu

HAEE-IVAPeko zuzendaria  
Zuzenbide Administratiboko irakaslea. Deustuko Unibertsitatea  
Wellingtongo dukea, 2  
01010 Gasteiz  
J-Erkoreka@ivap.es

BIBLID [1137-1951 (1999), 4; 33-43]

## Administrazio eta Prozeduraren 30/1992, azaroaren 26ko Legearen Aldaketa eta euskararen ofizialkidetasuna. Harridurak, zalantzak, noraezak eta, batez ere, galderak

(Modification of Law 30/1992, dated 26th November, on Administration  
and Procedure and the co-official status of the Basque language.  
Astonishments, doubts, uncertainties and, above all, questions)

**Z**anak Administrazio eta Prozedurako 30/1992 Legearen 36. artikulua oraintsu izandako aldaketa du aztergai. Aldaketa horren eraginez, erkidegoan erkidegoko hizkuntza ofizialkidean idatziriko administrazio-agiriak, espedienteak eta horien zatiak jatorrizko Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo eragina izan behar dutenean ez dute gaztelaniara itzuli beharrik izango, ondorioak izango dituen lurraldean ere hizkuntza hori ofiziala denean. Berez arrazoizkoa eta beharrezkoa den aldaketa horrek, ordea, arazo ugari sortzen du hizkuntzen arauketa arrazoi linguistikoei begiratu barik, kanpokoen ustezko erasoetatik babesteko egiten denean. Bereziki, valentzieraren eta Nafarroako "vascuence"-aren kasuak aztertzen dira.

**a** I hilo de la reforma recientemente operada en el art. 36 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, el trabajo analiza los chocantes efectos que una modificación en sí misma positiva y razonable como la de suprimir la obligación de traducir en todo caso al castellano los documentos, expedientes o partes de los mismos que estando redactados en cualquiera de las lenguas autonómicas cooficiales hayan de surtir efectos en el territorio de una Comunidad Autónoma distinta en la que dicha lengua tenga también carácter oficial, puede producir un contexto en el que la regulación de algunas lenguas se ha llevado a cabo atendiendo más a la idea de defender a la comunidad hablante de presuntas e hipotéticas agresiones ajenas que a consideraciones estrictamente lingüísticas.

**a** Au fil de la réforme récemment opérée dans l'art. 36 de la Loi 30/1992, du 26 novembre, le travail analyse les effets choquants qu'une modification positive et raisonnable en elle-même, comme de supprimer l'obligation de traduire, dans tous les cas, à l'espagnol les documents, les dossiers, en partie ou entièrement, qui, rédigés dans n'importe laquelle des langues autonomiques co-officielles, aient des effets sur le territoire d'une autre Communauté Autonome dans laquelle cette langue a également caractère officiel, mener à un contexte dans lequel la réglementation de certaines langues aurait lieu en prenant compte, surtout, l'idée de défense de la communauté parlant cette langue des agressions étrangères présumées et hypothétiques, plutôt que des considérations strictement linguistiques.

---

1. Sarrera. 2. Arazoaren azterketa: **Administrazio eta Prozeduraren Legearen 36. artikulua**ren bigarren eta hirugarren atalak. 3. 4/1999 Legea, urtarrilaren 13koaren bidez egindako aldaketa. 4. **Konstituzio Auzitegiaren 50/1999 Epaia**, apirilaren 6koa. 5. **Administrazio eta Prozeduraren 30/1992 Legearen 36.3 artikulua**ren testu berriak sor ditzakeen arazoak: 5.1. Katalana eta valentziera, hizkuntza bera al dira? 5.2. EAEko administrazioetan euskaraz bakarrik idatzitako agiri eta espedienteek zein eragin dute Nafarroako Foru Erkidegoaren lurraldean? 5.3. Ustekabeko azken txundidura.

---

## 1. Sarrera

Administrazio legerian egunean-egunean gertatzen ari den berrikuntza motorizatuaren ingurumarian, 1992ko azaroaren 26ko Legeari ere aldatzeko txanda heldu zaio. Jakina denez, Administrazio Prozedurari buruzko 1958ko Lege ospetsuak hogeita hamalau urte luzetan iraun zuen indarrean. Horren aurrean, ordea, sei urte buruzuri nahikoak izan omen dira 50eko hamarkadako Lege hura aldatzeko eman zena –1992koa, alegia– zaharkitua geldi dadin eta, horren ondorioz, aldatu beharra etorri omen zaio.

Izan ere, araudirik bada iraupenerako bokazio argia duenik, administrazio prozedurari buruzkoa da, zalantza barik. Administrazioan, beste edozein organizazioan bezalaxe, langileen jarrerak, atal guztien jarduteko moduak, zerbitzuarekiko konpromisoak eta, azken batean, lan-kultura bera ez dira egun batetik bestera aldatzen. Urteetako ahaleginaren ondorioz antolakuntzaren osagairik okerrenak konponbidean jartzea ere ez da lorpen txikia izaten. Haatik, denbora eman behar zaie legeei, herritarrekiko zerbitzu eta jarrerak arian-arian itxuraz aldatzen eta sakonean eraberritzen joan daitezen nahi bada behintzat.

Legegilea, alabaina, ez da, antza, iritzi berekoa izan, eta administrazio prozeduraren –oraindik oraintsuko– aldaketaren aldaketari ekin dio. Erreforma berria ahalbideratu duen Legea, gainera –hots, 4/1999 Legea, urtarrilaren 13koa– ez da azaleko ukituetan gelditu, aitzitik, 1992ko erreformak sakonean aldatu zituen zenbait arlo garrantzitsutaraino hedatu da. Auzitegi Gorena oraintxe hasita zegoen, neketsu eta ozta-ozta, 30/1992 Legearen xedapen berritzaileen inguruko jurisprudentzia-ildoak mahaigaineratzen, eta une berean etorri behar izan zaigu, hain justu, oraingo aldaketa. Are gehiago, aldatu berri den Legea indarrean egon izan den bitartean sorturiko auzietan bere xedapen eta arauak ezarri beharko direnez –*tempus regit factum* hastapen ezaguna medio–, Auzitegi Gorenak dagoeneko

indargabetuta dauden artikuluen edukia eta norainokotasunaren inguruko bere doktrina ematen jarraitu beharko du hurrengo urteetan, eta baita alferrikako ahalegin ugari erre eginkizun hutsal horretan.

Hala ere, Lege hau gure eguneroko lanean oinarritzko tresna dugunok, badugu pozik izateko arrazoirik. Aitaren batean igaro bazaizkigu ere, erreforma-legeak sei urtetan iraun baitu indarrean. Beste askok eta askok ez dute zorte hori izan. Egungo legegintza zoramenezkoaren ekimenez arau ugari iraupen laburra baino laburragoa du eta, batez beste, piloa dira, azkenean, indarra hartzen dutenerako jadanik aldatzear daudenak. Gezurra dirudien arren, bat eta bi baino gehiago dira, azken boladan, indarrean sartu diren urte berean aldatu egin diren legeak.

Beste estatu batzuetan legeak eta horien eragina ebaluatzeko dagoen ohitura gure artera ekarriko bagenu, batek daki zer-nolako belarritenkadak jasan beharko lituzketen hemengo legegileek horrelako jarreretan jarraituz gero.


Nolanahi ere, lantxo honen helburua ez da erreformaren erreforma sakon aztertzea. Oraingoan, 1992ko Legeak berritu zuen eta 1999koan eraberritua izan den puntu txiki bati bakar-bakarrik eskainiko diogu gure arreta. Hain zuzen ere, prozeduretako hizkuntzaren arauak jasotzen duen 36. artikulua bigarren puntuari eta azken puntuko xedapenari. Horri dagokionez, berrikuntza txikia sartu du 4/1999 Legeak jatorrizko testuan, bai, baina, ikusiko dugunez, ez nolana hikoia. Arazoak sor ditzakeena baino.

## 2. Arazoaren azterketa: **Administrazio eta Prozeduraren Legearen 36. artikulua**ren bigarren eta hirugarren atalak

Administrazio eta Prozeduraren Legearen jatorrizko testuak –1992ko azaroaren 26koak, alegia– bere bigarren atalean autonomia erkidegoetako eta toki-erakundeetako administrazioan tramitatzen diren prozeduretan lekuan lekuko Lege autonomikoak dioen hizkuntza erabiliko dela xedatu eta gero, honakoa aurreikusten du:

“... en cualquier caso, deberán traducirse al castellano los documentos que deban surtir efectos fuera del territorio de la Comunidad Autónoma...”

Ildo beretik jarraituz, artikulua honen hirugarren zatia ere gauza bera agintzen du Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo ondorioak sortuko dituzten administrazio-espedientei edota espedienteen zatiei buruz:



6. Wendell HOLMES (ikus 93. orria)

“Los expedientes o las partes de los mismos redactados en una lengua cooficial distinta del castellano, cuando vayan a surtir efectos fuera del territorio de la Comunidad Autónoma, deberán ser traducidos al castellano por la Administración Pública Instructora”

Ikusten denez, bada, transkribatu ditugun zatien arabera, gaztelaniaz beste hizkuntza ofizialetan bakar-bakarrik idatzita dauden agiri, espediente edota espedienteen zatiak gaztelaniara itzuli behar dira, nahitaez, Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo ondorioz izatea nahi bada. Itzulpenaren beharra –ezinbestekotasuna, alegia– argi eta garbi dario aztergai dugun arauaren testuari. Ez dago horretan zalantzarik. Esku artean darabilgun artikulua “... en cualquier caso, deberán traducirse...” baitio alde batetik, eta “... deberán ser traducidos...” bestetik.

Xedapen bi horiek logikoak eta ulergarriak izan daitezke, neurri batean, egungo Estatu autonomikoaren oinarrian dagoen agintearen lurralde-banaketan, autonomia erkidegoak baitira erreferentzia nagusia. Alabaina, herrien, kulturen eta hizkuntzen errealitate sakonak Administrazioaren azaleko aginduak baino setatsagoak izan ohi dira, aldagaitzagoak. Eta horrelakoetan, alferrik saiatuko dira Administrazioako agintariak gauzak aldatu nahian edo errealitatearen kontrako itxurak egiten, aginte publikoen jardueraren gaitetik, kulturari lotutako errealitate sustraituek beren hartan jarraituko baitute. Hego Euskal Herria, adibidez, bi erkidego ezberdinetan banatu daiteke: Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan. Baina hori gora behera, euskal hizkuntzak, euskarak, ez du utziko erkidego bien kulturaren bizkarrezurra; aldiz, erkidego bi hauen errostraien muinean jarraituko du. Eta berdin antzeko zerbait baieztatu daiteke, segur aski, katalana erabiltzen duten lurraldeekin ere.

Horiek horrela izanik, Administrazio eta Prozeduraren 30/92 Legearen jatorrizko testuak –eta, batez ere ikusi ditugun 36. artikuluaen bi zatiek– arazo juridiko larriak sortzen zituen. Legegileak ez baitzuen kontuan hartu administrazioek gaztelaniaz beste hizkuntza ofizialetan idatzitako agiriek, espedienteek edota espedienteen zatiek, hizkuntza hori berori ofizialtzat duen beste Autonomia Erkidegoaren lurraldean izan ditzaketela ondorioak<sup>1</sup>. Eta orduan... zer? Derrigorrezkoa al zen horrelako kasuetan ere gaztelaniara itzultzea? Bazirudien baietz; Legeak, ikusi dugunez, esapide zabal eta oso aginkorrak erabiltzen baitzituen: “... en cualquier caso, deberán traducirse...” eta “... deberán ser traducidos...”.

Hori horrela ulertzea, ordea, Konstituzioaren kontratatzat har zitekeen. Izan ere, Konstituzio Auzitegiaren 32/1986 epaiak esan zuenaren arabera, hizkuntza bat ofiziala izateak hauxe adierazi nahi zuen, hots, “... que los poderes públicos la reconozcan como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, con plena validez y efectos jurídicos...”. Ofizialtasunaren eraginak horiek izanik, nola izan zitekeen orduan, edozein autonomia erkidegotan ofiziala den hizkuntzan idatziriko administrazio-espedienteak erkidego horren berorren lurraldean ondorio juridikoak izateko gaztelaniara itzuli behar izatea?

Argi dago: Administrazio eta Prozeduraren 30/1992 Legearen 36. artikuluaen bigarren eta hirugarren atalek Konstituzionalitate-blokea urratzen zuten. Kataluniako Autonomia Erkidegoak, haatik, Konstituzio Auzitegiaren aurrean aurkatu zituen, besteak beste, aipatu ditugun bi atal horiek. Errekurtsoaren arrazoibideak argiak bezain ukaezinak ziren, nire ustez:

“A juicio de la Generalidad –zehazten da Konstituzio Auzitegiaren epaiaren aurrekinetan– estos preceptos legales incurren en inconstitucionalidad, ya que al establecer la obligatoriedad de traducir al castellano los documentos y los expedientes que deban surtir efectos fuera, no ya del ámbito lingüístico, sino del territorial de la Comunidad Autónoma, no está respetando el carácter oficial de las lenguas que tienen reconocido ese valor en ámbitos territoriales superiores a los de una Comunidad Autónoma. Por ello entiende que los apartados segundo y tercero del

art. 36 son contrarios al art. 3 CE y los correspondientes preceptos estatutarios en los que se ha atribuido carácter oficial a estas lenguas...”.

Estatuko abokatuak, ordea, gogor eutsi zion bereari auzian barrena, baina, ikusiko denez, oso alegazio ahuletan oinarrituz. Bere ustez, “... toda eficacia extraterritorial de una actuación administrativa afecta a la seguridad jurídica y a terceros potenciales que la pueden desconocer o elegir otra diferente, por ello entiende que la competencia en estos casos corresponde al Estado...”.

Arrazoiketa honetan, ikus daitekeenez, korapilatuta, nahastuta agertzen zaizkigu, berez diferenteak diren kontuak. Gauza jakina da, gaztelania bakarrik badaki edo gaztelania espresuki aukeratzen badu, kaltetua gerta daitekeela herritarra bere interes eta eskubideetan Administrazioak gaztelania ez den beste hizkuntzetan idatziriko egintza elebakarren aurrean. Baina horrek, berez, ez dauka zer ikusirik autonomia erkidegoen arteko lurralde-mugekin. Erkidegoan erkidegoko hizkuntza ofizial berezia ez jakiteak babesik eza sor diezaioke herritarrari, bere interesak ukitzen dituzten egintzak ezagutzen ez duen hizkuntza horretan bakar-bakarrik ematen baditu Administrazioak. Hori, dena den, Autonomia Erkidego beraren barruan zein erkidego ezberdinen artean berdin-berdin gerta daiteke. Edo beste era batera adierazita, egintza eman duen Administrazioa eta interes ukituaren titularra autonomia erkidego ezberdinetakoak izateak ez dio egoera horri ezer gehitzen, baldin eta –jakina– autonomia erkidego horietan ofizialtzat hartutako hizkuntzak berdinak badira.

Zertan zebilen orduan, Estatuko abokatuak, hizkuntza ofizialkidea ez ezagutzearen ondoriozko babesik eza jarduera administratiboaren lurraldez kanpoko eraginkortasunak sortzen zuen beren-beregizko arazoa dela baieztatzen?

### **3. 4/1999 Legea, urtarrilaren 13koaren bidez egindako aldaketa**

Gauzak horrela, 1998. urtearen hasieran, Estatuko Gobernuak lege-egitasmo bat aurkeztu zuen Diputatuen Kongresuan, Administrazio eta Prozeduraren 30/1992 Legea aldatzeko.

1. Diogun hau Iñaki Agirreazkuenagak ere salatu zuen 1993. urtean egindako mintegi batean. “Kasu horretan –zioen Administrazio Zuzenbideko Katedradunak, Legearen 36.2. artikuluaen inguruan– argi dago Espainiako legegileak ahaztu egin duela Komunitate Autonomo batzuetan hizkuntza berezkoa edo propioa bera dela, eta ondorioz bera izanik, ez dutela zertan hizkuntza amankomun gisa gaztelarera jo beharrik” (Ikus AGIRREAZKUENAGA, Iñaki: “Isiltasun administratiboa eta hizkuntzen erabilera”, in *Procedura Administratiboko 30/1992 Legeari buruzko ihardunaldiak*. Oñati, 1994, 33. or.)



Lege-egitasmo horrek, besteak beste, 36. artikulua ezaguna aldatzeko xedea zekarren. Hain zuzen ere, aurreko atalean aztergai izan dugun puntua aldatu nahi zuen artikulua; hots, erkidegoan erkidegoko hizkuntza ofizialkidean bakar-bakarrik idatzita dauden agiriak Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo ondorioak izan behar dituztenean gaztelaniara itzuli behar diren ala ez diren zehazteari dagokion puntua.

Eta harrigarria bada ere, funtsean, Kataluniako Generalitateak, bere garaian, 30/1992 Legearen kontra aurkeztu zuen errekurtsioan egindako alegazioei amore ematera dator Estatua, erreforma honen bitartez. Gogoratuko denez, errekurtsiogilearen arrazoibide nagusia honako hau zen auzi hartan: Konstituzionalitate-blokea urratzen zuela erabat, administrazio batek bertako hizkuntza ofizialkidean bakar-bakarrik idatziriko dokumentuak hizkuntza bera ofizialtzat duen beste Autonomia Erkidegoaren lurraldean ondorioak izango dituztenean ere gaztelaniara itzuli beharra. Bada, aurreratu bezala, egungo erreforma aipaturiko baldintzetan gaztelaniara nahitaez itzuli behar hori kentzera dator. Eta horretarako, 36. artikulua 2. atalean itzulpenari buruz esaten zirenak kendu eta 3. atalarentzat, berriz, ondorengo erredakzioa proposatzen du:

“La Administración pública instructora deberá traducir al castellano los documentos, expedientes o partes los mismos que deban surtir efecto fuera del territorio de la Comunidad Autónoma y los documentos dirigidos a los interesados que así lo soliciten expresamente. Si debieran surtir efectos en el territorio de una Comunidad Autónoma donde sea cooficial esa misma lengua distinta del castellano no será precisa su traducción.”

Hortaz, Lege-egitasmoak bere hartan mantentzen du artikulua atal honen zatirik handiena, baina honako berrikuntza hau sartzen du bere jatorrizko testuan: ez dagoela dokumentu eta espediente elebakarrak gaztelaniara itzuli beharrik, “... si debieran surtir efectos en el territorio de una Comunidad Autónoma donde sea cooficial esa misma lengua distinta del castellano...”, hau da, gaztelania ez den beste hizkuntza ere ofiziala bada ondorioak izan behar dituzten autonomia erkidegoaren lurraldean.

Lege-egitasmoaren tramitazioan, zenbait emendakin egin zuten talde parlamentarioek, Gobernuak Gorteetan aurkezturiko 36. artikulua aurka. Ohi denez, gainera, gustu guztiak asetzeko modukoak. Talde Mistoko Francisco Rodriguez Sanchez diputatuak, esate baterako, itzulpenaren beharra kasu guztietarako kentzea proposatu zuen, alegia, Estatuko edozein hizkuntza ofizialetan tramitaturiko prozedurak Estatuko lurraldeko edozein lekutan eragin osoak

izatea. *Izquierda Unida*ko taldeak, aitzitik, 36.3 artikulua jasotzen dituen kasuetan ere, itzuli beharra izango dela espresuki xedatzea proposatu zuen, beti ere interesdunak hala eskatuz gero. Aurkeztu zirenen artetik, ordea, zuzenketa bat bera ere ez zen onartu, eta Gobernuak Gorte Nagusietara bidali zuen testu berberarekin aprobata zen azkenean esku artean darabilgun 36. artikulua hau.

Ulergaitza egiten zaigu askori, sei urte lehenago Estatuko abokatuak Konstituzio Auzitegiaren aurrean hain tinko defendatu zuen Legearen 36. artikulua aldatu eta errekurtsiogilearen arrazoibideak bere egitea. Zeren, egun bidezkotzat hartzen bada duela urte batzuk Kataluniako Generalitateak bere errekurtsioan eskatzen zuena... ez ote zen, orduan ere, legezkoa ez ezik zentzuzkoa ere izango? Zer dela eta egin zion Estatuak aurre, gaur, bere kabuz eta inoren bultzada barik ontzat hartzen duenari? Zer gertatu da 1992tik 1998ra bitarteko urteetan Estatuaren irizpidea hain nabarmen aldatu dadin?

Agian, hurrengo lerroetan aurki ditzakegu galdera horien erantzunak.

#### 4. Konstituzio Auzitegiaren 50/1999 epaia, apirilaren 6koa

Administrazio eta Prozeduraren 30/1992 Legearen aldaketa onartu eta handik hiru hilabetera, sei urte lehenago bere kontra aurkeztu ziren errekurtsioei erantzuten dien epaia eman du Konstituzio Auzitegiak. Lantxo honetan aztertzen ari garen gaiari dagokionez, goi-auzitegiak ez du beste erremediorik izan errekurtsiogileari arrazoia ematea baino.

Baina, epaiaren nondik eta norakoak zehatz aztertzen hasi baino lehen, albora ezineko galdera datorkigu burura: sinestekoa al da Estatuko legegileak, sei urte lehenagoko jarrera estuak aldatuz, 30/1992 Legearen 36. artikulua aldatzea proposatu duenean Konstituzio Auzitegiak artikulua horren zilegitasun juridikoaren inguruan zeukan iritzia berri ez izatea? Ez, noski. Inoizkotan gertatu ohi diren filtrazioen kasuan izan ezik, herritar arruntok ez dugu izaten Konstituzio Auzitegiak oraindik epaitu barik dituen auzietan erabakiko duenaren berri; baina, dirudenez, oso bestelakoa da Estatuko Administrazioaren egoera. Kasu honetan behintzat, Estatuak ondo zekien Konstituzio Auzitegiak handik hilabete batzuetara epaituko zuena eta horregatik abiatu zen Legearen erreforma egin zuen moduan egitera. Baina goi-auzitegiak ere, ikusiko dugunez, ez du Estatua nabarmen utzi nahi izan, eta kontu handiz jokatu

du itxurak gal ez daitezen. Bien arteko ezkutuko hitzarmena ote?

Baina, berreskura dezagun azalpenaren haria, epaiaren edukiarekin jarraituz. Ondorengo zatian ikusten denez, gardena da oso Konstituzio Auzitegiak ondorio horretara heltzeko erabiltzen duen arrazoiketa:

“No cabe, en efecto, desconocer que en algunos supuestos singulares la oficialidad de la lengua propia de una Comunidad Autónoma no se detiene en los límites de su territorio. Lleva, por ello, razón la Comunidad Autónoma recurrente al afirmar que, en el anteriormente referido supuesto, someter a una traducción al castellano los documentos que, surgidos en una de ellas, deban surtir efectos en la otra, supondría un atentado a la oficialidad de la lengua en cuestión, común a ambas Comunidades Autónomas. Obligar a traducir al castellano todos los documentos, expedientes o parte de los mismos que vayan a producir efectos fuera de la Comunidad Autónoma, incluso en el caso de que en el territorio donde vayan a desplegar sus efectos tenga también carácter oficial la lengua en que dichos documentos hayan de ser redactados supone desconocer el carácter oficial de dicha lengua (...). Por esta razón, en el ámbito territorial donde una lengua tiene carácter oficial, los actos jurídicos realizados en dicha lengua, aunque tengan su origen en un procedimiento instruido en otra Comunidad Autónoma en la que dicha lengua tenga también carácter cooficial, han de surtir, por sí mismos, plenos efectos sin necesidad de ser traducidos...”

Argi dagoenez, Auzitegiak bere-bereak egiten ditu epai honetan errekurtsogilearen arrazoibideak. Konstituzioaren kontrakoa da gaztelania ez den beste hizkuntza ofizial batean idatzita dauden administrazio-agiriak edo espedienteak gaztelaniara derrigorrez itzularaztea, ondorioak izan behar dituen Autonomia Erkidegoan ere hizkuntza hura ofiziala bada.

Nolanahi ere, epai honetatik bi gai nagusi aipatuko nituzke. Lehenik eta behin, epaiak zera esan izana, alegia, gaztelania ez den beste hizkuntza bat autonomia erkidego batean baino gehiagotan ofiziala izatea “... en algunos supuestos especiales...” bakarrik gertatzen dela. Espainiako Estatuan gaztelania ez den hiru hizkuntza ofizial daude: euskara, galiziera eta katalana. Agian, valentziera ere sartu egin beharko genuke zerrendan baina, oraingoz, horretan utziko dugu. Gauzak horrela izanik, hiru horietatik birekin gertatzen bada –katalanarekin eta euskararekin han zuzen ere– hizkuntza

ofizialkidea Autonomia Erkidegoaren mugetatik baino harantzago hedatzea, nola baieztatu dezake goi-azitegiak aipaturiko arazoa han eta hemengo kasu jakinetan gertatzen dela bakarrik?

Arestian adierazi dugu kulturaren errealitate sakonak eta Administrazioaren lurralde-antolakuntzak ez datozela maiz, bat. Honekin lotuta, Estatuak mesfidantza handiz ikusten ditu autonomia erkidegoen arteko harremanak. Eta neurri batean, ulergarria da jarrera hori. Autonomia erkidegoek Estatuaz aparte izan ditzaketan lotura sakonak eta osagai komunak indartzen jardunez gero, epe ertain edo luzera, Estatuaren beraren izatea eta zeregina ere kolokan jartzeraino hel daitekeelako, Estatu berri baten hazia ereinez. Hortik dator Konstituzioaren 145. artikulua harreman horiei hain oztopo latzak ezartzea. Estatuak ez ditu autonomia erkidegoen arteko harremanak begi onez ikusten, eta are txarrago oraindik elkartu nahi direnak lotura kultural errotuak dituzten erkidegoak badira, Estatu deuseztatzearen mamua ikusten baitu hor.

Datu honen argitan, ezinbestekoa da galdera: Konstituzio Auzitegiaren baieztapenak –hots, “... en algunos supuestos especiales...” horrek– ez al du islatzen Estatuaren eraginpetik kanpo hezurmamizen diren edo herzurmami daitezkeen autonomia erkidegoen arteko lotura horiekiko beldur-sundaren antzeko zerbait?

Bestetik, Auzitegiak ez ditu, formalki bederen, aurkatutako bi arauak Konstituzioaren kontrakotzat hartzen. Gezurra dirudien arren, horrela da. Autonomia Erkidegoaren lurraldetik at ondorioak izango dituzten administrazioetako agiriak, espedienteak edota espedienteen zatiak beti eta inolako salbuespen barik gaztelaniara derrigorrez itzularazteak konstituzionalitate-blokea urratzen du –epaiak argi dioenez, “... exigir en estos casos la traducción de los documentos (...) constituye una vulneración del art. 3.2. CE y de los correlativos preceptos estatutarios en el que se reconoce el carácter oficial de otras lenguas distintas del castellano...”– baina Konstituzio Auzitegiak ez du beharrezko ikusten errekurrituriko bi artikuluen inkonstituzionalitate-aldarrikapena egitea. Bere ustez, Legearen esana Konstituzioarekin bat etor daiteke era honetara ulertuz gero, hots, Legearen 36. artikulua 2 y 3 atalak itzuli beharra ezartzen badute ere, ez dela itzuli beharrik izango, gaztelania ez den beste hizkuntza ere ofiziala bada dokumentuek eta espedienteek ondorioak izan behar dituzten autonomia erkidegoaren lurraldean. Edo beste hitzetan adieraziz, kasu hori ez dela atal haien barnean sartzen. Epaiaren beraren hitzetan esateko, zoriarekin bi atalak “... son constitucionales siempre que se entienda que la preceptiva traducción al castellano contenida en los mismos no comprende aquellos supuestos en



7. Max WEBER (ikus 100. orria)

los que los documentos en cuestión deban surtir efectos en el territorio de una Comunidad Autónoma en la cual sea también lengua oficial aquélla en la que el documento se encuentre originariamente redactado...”.

Baina, –galde dezake irakurle zorrotzak– ... nola uler daitezke era horretara 36. artikulua 2 eta 3 atalak, lehenbizikoak, eguna bezain argi, “... en cualquier caso deberán traducirse...” esaten badu, eta besteak, berriz, ilunagoa ez den “... deberán traducirse...” esapidea erabiltzen badu? Galdera bera egiten

dute, nire ustez, zentzu osoz, epaian boto partikularra izenpetzen duten Carles Viver eta Pablo García magistratuek<sup>2</sup>. Baina epaia epai eta esana esan, gustukoa izan zein ez izan, ez dago arazoari buelta gehiago ematerik. Galdegileak, ordea, argiago ikusiko du orain goiko lerroetan aipatzen genuen ezkutuko hitzarmena zertan datzan. Estatuak 30/1992 Legea Konstituzio Auzitegiaren doktrinara egokitzeko konpromisoa hartu du eta, horren trukean, goi-azitegia bere epaian Lege haren jatorrizko testuari egur gehiegirik ez ematera behartu bere burua. *Do ut des* eta denak pozik.

2. Magistratu hauen iritziz, “...el enunciado legal del art. 36.2 y 3 resulta, en su literalidad, incompatible con la norma o interpretación contenida en el punto segundo del fallo...”. Horretan oinarrituz, kritika zorrotza egiten diote epaiari: “En estos supuestos, intentar reparar la inconstitucionalidad de un precepto manteniendo intacta la constitucionalidad de su enunciado legal pero excluyendo de su contenido o alcance una norma o interpretación que claramente no puede excluirse sin que el significado resultante del precepto sea intrínsecamente contradictorio con su tenor literal, sobrepasa los límites establecidos por este Tribunal al empleo de la técnica de las sentencias interpretativas y produce efectos gravemente perjudiciales para la certeza del Derecho y la seguridad jurídica...”



## 5. Administrazio eta Prozeduraren 30/1992 Legearen 36.3 artikularen testu berriak sor ditzakeen arazoak

Legearen aldaketaren inguruko joan-etorriak gardenak ala ilunak izan diren, bost axola behar digu. Aldaketa eginda dago, eta berandu bada ere, Estatuak, azkenean, ohartu da zentzurik bakoa ez ezik, administrazio-agiriak gaztelaniara itzuli beharrak konstituzionalitate-blokea urratu ere egiten duela baldin eta idatzita dauden hizkuntza ofizialak eragin eta ondorioak izan behar dituzten Autonomia Erkidegoaren lurraldean ere ofiziala bada, eta horretara egokitu du bere Legeria.

Dena den, testu berriak ere arazoak sor ditzake. Ez gaizki eginda dagoelako, bitxikeriaz joserik egoera batean aplikatu behar delako baino. Ikus ditzagun horietako pare bat.

### 5.1. Katalana eta valentziera, hizkuntza bera al dira?

Administrazio eta Prozeduraren Legearen 36.3 artikularen testu berriari jarraiki, Kataluniako administrazio batek, katalan hutsez ematen baldin badu autonomia erkidegoaren lurraldetik kanpo eragina izan behar duen egintza bat, ezinbestekoa dugu jakitea ondorio horiek zein lurraldetan gauzatuko diren, horren arabera bakarrik zehaz dezakegulako egintza hori gaztelaniara itzuli behar den ala ez.

Baleareetako Autonomia Erkidegoan ez da itzuli beharrik izango, gaztelaniarekin batera eta Katalunian bertan bezalaxe, uharte hauetako hizkuntza ofizialak ere, bere Autonomia Estatutuaren 3. artikularen arabera, katalana delako. Baina, ... eta Valentziako Autonomia Erkidegoaren lurraldean zer? Badirudi, hemen itzuli beharra izango dela. Hizkuntzalarien ustez, erkidego honetako hizkuntza ofizialak ere, Kataluniakoa bertakoa bezala katalana den arren, Autonomia Estatutuak, valentziera dela baieztatzen baitu bere 7. artikuluan: "... Los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma son el valenciano y el castellano".

Baten batek pentsa dezake hori ez dela arazoa, izenez, deituraz, ezberdinak badira ere, azken batean bi terminoen atzean dagoena hizkuntza bera dela argudiatuz. Baina hau eztabaidagarria eta eztabaidatua da. Izan ere, argi dago hizkuntzalarien arteko ika-mikak gora behera, ikuspegi juridiko-fomaletik behinik behin, hizkuntza ezberdin gisa agertzen zaizkigula katalana eta valentziera. Are gehiago, Valentziako Autonomia Erkidegoko erakundeak ahalegin sutsuak egiten ari dira bikoiztasun horretan

sakontzeko. Zenbait udalek erabaki du, adibidez, valentzieraz idatzi behar dituzten dokumentu ofizialen ortografia Kultura Valentziarraren Akademiaren Hizkuntza eta Literatura atalaren arauetara egokituko dela. Erabakiaren zergatietan argi somatzen da valentziera katalanetik alden du nahia: "... la necesidad imperiosa de acomodar la política oficial al mundo real en el que vivimos cada día, obliga a denunciar la catalanización que se pretende, consistente en la normalización de una lengua extraña para una gran mayoría del ciudadano medio que habla valenciano y en unas reglas ortográficas que se hallan bien lejos de la realidad lingüística del pueblo valenciano...".

Auzitegi Gorenak –ikus 1998ko urriaren 21eko eta azaroaren 16ko epaiak– legez kontraktatzat hartu ditu erabakiok, baina ez valentziera katalanetik urruntzeko xede horrek antolamendu juridikoa urratzen duelako, ez bada udalen eskuduntza-esparrutik kanpo dagoelako hizkuntzaren normalizazioaren inguruko erabakiak hartzea. Katalana eta valentzieraren arteko bikoiztasunak, bada, bere hartan jarraitzen du Zuzenbide positiboaren esparruan. Are gehiago, Valentzia aldeko udalei ukatzen zaien hizkuntzaren normalizaziorako eskuduntzak dituenak, Autonomia Erkidegoak, alegia, haien bide beretik jo du oraintsu, 1998ko irailaren 16ko Legearen bitartez Hizkuntzaren Akademia Valentziarra sortu duenean; hau da, valentziera hizkuntza berezituaren arauketaz arduratuko den erakundea sortu duenean.

Horrela bada, legezko izen propioa, herri-erakundearen berariazko babesa, beren-beregizko arauetara juridikoa, eta estandarizazioaren ardura bere gain hartuko duen Akademia berezituak ditu dagoeneko valentzierak. Zer gehiago behar du hizkuntza batek, maila juridikoan bederen, hizkuntza gisa onartua izan dadin?

Ezaguna da, beste alde batetik, zein izan den valentzieraren eta katalanaren arteko parekotasun edo berdintasuna aldarrikatu nahi izan duten agiri ofizialen joan-etorri latza. Valentziako Unibertsitatea ausartu zen lehenengoz berdintasun hori aldarrikatzen bere Gobernu Batzordearen 1986ko uztailaren 20ko erabakian. Bada, Autonomia Erkidegoko Administrazioak auzitara eramanez erabaki hori eta bai Valentziako Justizia Auzitegi Nagusiak, bai Auzitegi Gorenak ere, Estatutuaren kontraktatzat hartu zuten. Epaiaren zutabea berdina izan zen bi mailetan; Valentziako Estatutuak gaztelaniari eta valentzierari aitortzen diela bakar-bakarrik izaera ofiziala eta legez kontrakoa dela Estatutuak ofizialtzat hartzen ez duen hizkuntza bat Unibertsitate Publikoan ofiziala izatea. Egia da Konstituzio Auzitegiak atzera bota dituela bi epaiok bere 75/1997 epaian, apirilaren 24koan; baina egia da, era berean, goi-azuzitegiak ez duela epai horien kontra ekin, bi hizkuntzak berdina direla defendatzen duelako,



bere ustez, unibertsitate-autonomiak bide ematen duelako baino, esparru akademikoan bata eta bestea sinonimo bezala erabiltzea:

“... el acuerdo de la Junta de Gobierno de la universidad de Valencia que fue impugnado en la vía contencioso-administrativa y el art. 7 de los Estatutos de la universidad donde encuentra cobertura, vienen a establecer de consuno que la valenciana, lengua propia de la Comunidad Valenciana y por ello, de su Universidad, podrá ser también denominada “lengua catalana”, en el ámbito universitario, sin que ello contradiga el Estatuto de Autonomía ni la Ley de las Cortes Valencianas mencionada al principio. La universidad de Valencia no ha transformado la denominación del valenciano y se ha limitado a permitir que en su seno pueda ser conocido también como catalán, en su dimensión “académica”, según los propios Estatutos. No se rebasa, pues, el perímetro de la autonomía universitaria...”

Unibertsitatearen barruan, bada, eta eragin zientifiko/akademikoetara mugatuta, zilegi da valentzierari katalana ere deitzea. Baina hortik kanpora, ez.

Horrenbestez, ez dago bat ere argi 30/1992 Legearen 36.3 artikulua eduki berriak babesa emango dionik Kataluniako Administrazioan katalanez soilik idatzi eta Valentziako Autonomia Erkidegoaren lurraldean ondorioak izan behar dituen dokumentua ez itzultzeari. Denok dagigu hizkuntza berean ere aldaerak daudela lurralde batzuetatik besteetara. Eta Kataluniako Administrazioan, katalanez egindako testuak valentzieran ohikoak ez diren terminoak eta esapideak erabiltzen baditu... ba al dago esaterik, legearen arabera ez dela itzulpenik behar? Eta itzulpenik ez egitea erabakiz gero, ez ote dago oinarririk defendatzeko katalanez bakar-bakarrik eman izan diren egintzek ez dutela ondorioak Valentziako Autonomia Erkidegoan?

## 5.2. EAEko administrazioetan euskaraz bakarrik idatzitako agiri eta espedienteek zein eragin dute Nafarroako Foru Erkidegoaren lurraldean?

Euskarari dagokionez, Nafarroako Foru Erkidegoarekin sortzen dira arazoak batik bat.

Sobera jakina denez, Erresuma zaharrean ere, Valentziako Erkidegoaren antzeratsu, badago halako beldur, mesfidantza, edo errezero kutsuzko jarrera defentsiboa bere ondoan dagoen Euskal Autonomia Erkidego handiaren ustezko eraso-asmoezik. Sakonean, Estatuak autonomia erkidegoen arteko harremanak areagotzearen aurrean dituen beldur berdintsuak soma daitezke hemen; euskara ez ote den izango Laterri berriaren haziak ereiten hasteko behar den aitzakia. Eta jarrera horrek eraginda, noski, euskarari “vascuence” ezarri diote legezko izena. Are gehiago, euskararen ofizialtasuna bera ere –irudiz, gutxienez– bigarren mailakoa dela esan genezake Nafarroan; “baita ere”-koa. Izenlagunik gabeko ofizialtasuna gaztelaniari bakarrik baitagokio. Foruaren Hobekuntzarako Lege Organikoaren 9.1 artikulua eta “Vascuence”-ren Legearen 2.2 artikulua ezin argiagoak dira horretan; “*El castellano es la lengua oficial de Navarra*” baieztatzen dute biek, zoli eta garden. Horren aurrean, aldiz, bi testu juridikoetan euskarari ere ofizialtasuna aitortzen zaion arren, aitorten hori “... baita ere...” egiten da; “... también...”, alegia.

Nafarroan, dena den, ez dira ausartu –gaur arte bederen; gerokoa geroak esango du– gaztelaniarekin batera ofizialkidea den “vascuence” hori eta euskara hizkuntza ezberdinak direnik baieztatzen. Euskaltzaindiatik aparteko Akademia berezitua ere ez diote gaur-gaurkoz, behintzat, Nafarroako hizkuntza ofizialkideari ezarri. Aitzitik, izaera kontsultibo ofiziala onartzen diote aipaturiko erakundeari. Hori bai, Foruaren Hobekuntzarako Lege Organikoak ez dio “vascuence”-ari Foru Erkidegoaren hizkuntza propioaren izaera aitortu. Monrealek dioenez, hizkuntzen ofizialtasuna arautzen duen legeak<sup>3</sup> egin behar izan du hori, erdi ezkutuan, lotsatzekoa balitz bezala Euskal Autonomia Erkidegoak hizkuntza propietzat duena Nafarroan ere hizkuntza propioa izatea.

Dena den, orain azpimarratu nahiko nukeena da EAErekiko mesfidantza horiek euskararen araubidearen arloan neurri bitxiak hartzera eramanez dutela Foru Komunitatea eta, egun, neurri horiek arazoak sor ditzaketela 30/1992 Legearen 36.3 artikulua aplikazioaren ikuspuntutik.

Badakigu jakin ere, euskara, Foru Araubidearen Berreskuratze eta Hobekuntzarako Lege Organikoaren 9.2 artikulua arabera, ez dela ofiziala Nafarroako lurralde osoan, Foru Erkidegoaren eremu euskaldunetan baino: “... tendrá también carácter de lengua oficial en las

3. MONREAL ZIA, Gregorio: “La oficialidad del euskera en Navarra”. *Euskararen lege-araubideari buruzko jardunaldiak/Jornadas sobre el régimen jurídico del euskera*, Oñati, 1990, 116. or.

zonas vascoparlantes de Navarra...". Datu hori abiapuntutzat hartuta, 1986ko abenduaren 15eko Foru Legeak zehaztu du hizkuntzaren aldetik Nafarroa zatikatzen duten eremuak zenbat eta zeintzuk diren: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna.

Euskararen ikuspuntutik, mila arazoren iturburu da lurraldearen sailkapen hori. "Nafarrok, -zioen oraintsu Andres Iñigo nafar euskaltzain berriak- badirudi mugak ditugula Nafarroa barruan, eta eremu batetik bestera pasatzean eskubideak galdu egiten ditugula. Euskararen normalizatorako oztoporik handiena legea bera da"<sup>4</sup>.

Foru Lege honen arabera, Iruñea, Nafarroako hiriburua eta biztanlegorik gehien biltzen duena -garai bateko Joanes de Etxeberriren "... euskaldun osoen hiri buruzagia..."-, ez dago eremu euskaldunean, eremu mistoan baino. Eta eremu honetan euskararen ofizialkidetasuna oso murrizta da. Administrazioaren jarduerari dagokionez, Legeak ez dio besterik, eremu honetako herritarrek eskubidea dutela baino Administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzeko. Ez egiteagatik, euskarazko erantzuna ere ez die bermatzen Legeak eremu honetako herritarrei.

Eremu ez-euskaldunean, berriz, Administrazioarengana euskaraz bakarrik zuzentzeko eskubide hori ere zaie herritarrei, beti eta kasu guztietarako, aitortzen. Administrazioak atzera bota dezakeelako euskaraz aurkezturiko idazkia, aurkezleari gaztelaniara itzul dezala galdatuz.

Esan beharrik ez dago arauketa honek guztiak ondorio garrantzitsuak dituela guri dagokigun arlorako. Eta ez, noski, euskaraz bakarrik dauden dokumentu eta espedienteen eragina erraztearen bidetik. Duela urte bete eskas eman duen epai batean, 1998ko ekainaren 23koan, alegia, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak adierazten duenari jarraiki, behinik behin, erabilera ofizialean euskaraz bakarrik aritzea baztertuta baitago eremu mistoan. Hau eztabaidagarria izan daiteke, noski, baina ezin uka Legeak bide ematen diola Auzitegiari horrela epaitzeko.

Nolanahi ere, azter dezagun astiroago auzitara eraman zena. Iruñeko Udalak, baldintza hau ezarri ohi zuen -eta oraindik ohi du?- udalerriko kultura-talde eta elkarten artean dirulaguntzak emateko orduan, alegia udalaren diruz lagundutako ekintzei buruzko informazioa

gaztelaniaz idatzi behar zela edo, gehienez elebitara, baina kasu honetan, gaztelaniari lehentasuna eman. Edozen kasutan ere, debekatu egiten zuen erabat gaztelaniaz ez den beste hizkuntza batean bakarrik idatziriko propaganda: "... sin que pueda contemplarse en ningún caso -zioen hitzez hitz baldintzak- propaganda impresa únicamente en idioma distinto del castellano...". Honetan, Iruñeko Udala ez da aldentzen 135/1994 Foru Dekretuak, uztailaren 4koak, eremu mistoko erakundeen arteko harremanetan hizkuntzen erabilerari buruz xedatzen duenetik, alegia, erakunde publikoek elkarri igortzen dizkieten agiriak, jakinarazpenak edo adierazpenak elebitan idatz daitezkeela, baina "... hizkuntza bakarra erabiliz gero (...) gaztelaniaz izan beharko..." direla.

Iruñeko talde euskaltzaleek errekurtsioa aurkeztu zuten baldintza honen aurka, euskarak eremu mistoan zuen izaera ofiziala urratzen zuela argudiatuz. Baina Auzitegia, esan bezala, ez da iritzi honekin bat etorri:

"Ateniéndonos a la literalidad del art. 5, resulta que la zona en la que se inserta Pamplona sería de condición vascofona y no vascofona a la vez, puesto que es "mixta", de ambas. Recurriendo, sin embargo, al resto de la Ley vemos que su título 1 que regula el "uso normal y oficial", reserva el "uso oficial" a la zona vascofona estricto sensu, miembros que lo excluye en la zona mixta pues no otra cosa cabe concluir de la rúbrica de los capítulos 1 y 2: "Del uso oficial en la zona vascofona" y "Del uso en la zona mixta". Si a ello se añade que el artículo 9-2 de la Ley Orgánica 13/82 también parte de que el vascuence sólo es oficial en las zonas vascoparlantes o vascofonas, la conclusión obligada es que la ley del vascuence quiso excluir la cooficialidad castellano-vascuence en todas las zonas no estrictamente vascofonas..."

Gauzak horrela eta Nafarroako "vascuence"-ren Legea edota Justizia Auzitegiaren irizpidea aldatzen ez diren bitartean behinik behin, EAEko edozein administrazioan euskaraz bakar-bakarrik idatziriko dokumentuak eta espedienteak itzuli egin behar al dira Nafarroako eremu mistoan -biztanlerik gehienak biltzen dituen Iruñea ere barne- eta ez euskaldunean ondorioak izan ditzan?

Galdera egin beharra bera ere ez da arazo galanta!

4. EL DIARIO VASCO egunkaria, 1999ko martxoaren 5eko alearen 22. or.

### 5.3. Ustekabeko azken txundidura

Egunkariei esker jakin izan dugu, 1999ko maiatzean, Estatuko Gobernuaren Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak auzitara eramane duela Eusko Jaurlaritzak 1998ko urriaren 20ko bilkuran onetsi duen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren edukietako bat. Auzitaratutako puntua, hain zuzen ere, Planaren 7.5 zenbakian jasotzen dena omen da, iturri horien arabera. Puntu honi jarraiki,

“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo bere erakunde autonomoetako kargu eta enplegatu elebidunek euskararen erabilera bermatuko dute ekitaldia Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan edo Ipar Euskal Herrian bada eta erakundearen duten kargu edo lanpostuagatik badihardute...”

Lan honetan zehar ikusi ahal izan dugunez, egungo antolamendu juridikoak zilegitzat hartzen du, euskaraz bakarrik idatzita dauden administrazio-dokumentuak edota espedienteak, Autonomia Erkidego batean emanak izan arren, euskara ofiziala den beste Autonomia Erkidego baten lurraldean ere ondorioak izatea. Beste hitzetan esateko, mugatua bada ere, lurraldez kanpoko eraginkortasuna aitortzen die Legeak gaztelania ez den beste hizkuntza ofizialetan idatzita dauden administrazio jarduerari. Alabaina, lurraldez kanpoko eraginkortasun hori benetan gauza dadin, jatorrizko Administrazioaren jarraipena eta babes zuzena beharko da maiz sarri. Eta babes hori emateko, ez da harritzekoa, Administrazio horretako kargu eta enplegatuek ere, berez dagokien Autonomia Erkidegoaren lurraldetik at jardun beharra. Estatuko Administrazioak, ordea, ez bide du horrela uste. Javier Asuaren abokatuaren esanetan, “El Gobierno vasco puede establecer las normas para sus cargos dentro del País Vasco, pero no fuera de ese ámbito tal y como pretende al trasladar la exigencia de saber euskera a Navarra...”<sup>5</sup>. Baina, —eta zin dagit azken galderak izango direla hauek— nola liteke funtsezko administrazioaren jarduerari autonomia erkidegoaren lurraldetik kanpora ere eraginkortasuna aitortzen zaion bitartean, eraginkortasun hori benetan gauzatzeko helburu soilarekin beharrezkoak izan daitezkeen kargu eta enplegatuen jarduerak ontzat ez hartzea? Errekurtso honen atzean ez ote dago beste behin ere autonomia erkidegoen arteko harremanak areagotzearen arriskuen mamua?

5. Ikus “El Gobierno central recurre el plan de normalización del Ejecutivo Vasco”. *El PAÍS*, (*País Vasco*), 1999ko maiatzaren 31ko alea, 3. or.

